

KAROBIAK

Karobiak kare-harria kiskalduz kare bizia egiteko erabiltzen ziren labeak ziren. Baina, zertarako balio zuen kare biziak? Erabilera oso anitza zuen: eraikuntzan, lurra eta urarekin nahastuta, etxe-paretak eta mota guztietako hormak altxatzeko mortairu bezala erabiltzen zen; soroetan, ongarri bezala eta bertan sortzen ziren gaitzak eta izurriteak akabatzeko; ganaduaren zauriak sendatzeko ona zen; borda eta baserrietako hormak kare-esnez (letxeraz) zurituz, tifusa eta nafarria bezalako gaitzak desinfektatzeko egokia zen... Etxeko arrautzak luzerago kontserbatzeko ere erabiltzen zen, karea urarekin nahastuta lortzen zen orean arrautzak sartuz.

Dirudenez, karobien erabilera XVIII. mendearen hasieran orokortu zen Euskal Herrian, artoaren hedapenarekin batera neurri handi batean. Karobiak aldapetan eraikitzen ziren, goiko eta beheko ahoetara hobeto iristearren. Gehienetan lau bat metroko sakonera izaten zuten eta gutxinaka-gutxinaka estutzen joaten ziren, goiko ahora iritsi arte.

Karegile zaharrek diotenez, erregaia jartzen zen lehenik: haritz, gaztaina eta pago-egurra, otea... Honen gainean, kare-harri txikitua eta, gainean, erregaia berriro. Horrela, geruzaka, erregaia eta kare-harria tartekatuz. Lan horrek hainbat lagunen beharra eskatzen zuen; horregatik, hiruzpalau etxe elkartuz edota auzolanean egiten zen gehienetan.

Dena prest zegoenean, azpiko labe-ahotik su ematen zitzaion karobiari. Kare-harri eta egur geruza gehiago gehitu behar zitzaizkion karobiari aldean behin, lortu nahi zen kare-kantitatearen arabera. Karobiak piztuta astebete edo bi ematen zituen sutan, esan bezala, lortu nahi zen karearen baitan. Kare-harria erre eta kare bihurtzen zenean, hau karobiak azpian zuen saretik erortzen hasten zen. Labe-ahotik karea ateratzen zen eta, ongi hoztu ondoren, baserrian gordetzen zen.

Karobiek, ordea, ezin izan zioten aurre egin XX. mendeko ongarri kimiko eta porlanaren produkzio industrialari eta beherakada nabaria izan zuten, kare produkzioa mende horren erdi aldera guztiz amaitu zen arte. Ondorioz, baserriro zeuden karobietako askok, zoritxarrez, ez dute iraun. Gehienetan, baserriak beste erakinen bat egin behar zuenean, jada erabiltzen ez zen eta eskura zuen etxeko karobiko harriaz baliatzen ziren. Horregatik, ez dira asko gaur zutik eta bere osotasunean dirautenak Zizurkilan.

Zorionez, baditugu oraindik nahiko egoera onean dauden bakan batzuk: Luzuriagakoa (1), Ipidegikoa (2), Zaratekoa (3), Lizardikoa (4), Irizibarkoa, Irazukoa... Babes eta kontu handia eskatzen dute. Zain ditzagun!

Gehiago jakiteko:

Karobiak, karea lortzeko labeak – M. Elozegi Irurtia

http://www.zientzia.com/artikulu.asp?Artik_kod=5154

Zeanuriko karobia

<http://www.zeanuri-udala.org/Index.aspx?Cod=58&Idioma=1>



